| ☐ **A. Asmoa eta komunikazio-interakzioen elementuak.**<br>☐ 1. Komunikatzeko nahia. Emozioa eta hurbiltasuna komunikazio- harremanaren oinarri gisa.<br>☐ 2. Aurpegiaren eta gorputzaren bidezko adierazpena: intentziozko keinuak, beharra, aldartea eta horiekin lotutako sentsazioak.<br>☐ 3. Kontaktuaren eta ikusmenaren bidezko trukea.<br>☐ 4. Tonuaren eta emozioaren eta posturaren bidezko lehenengo interakzioak. Aurpegi eta keinu bidezko adierazpenak. Harremana gorputzarekin.<br>☐ 5. Haur-kantak eta magaleko jolasak.<br>☐ 6. Komunikazio-jarrera adierazgarriak: elkarren arteko arreta, begirada erreferentziala eta helduaren emozio-adierazpenen ulermena eta horien aurreko erreakzioa.<br>☐ 7. Partekatzeko objektuak bitartekari gisa lehenengo interakzioen testuinguruetan.<br>☐ 8. Trukeak errazten dituzten estrategiak: hizketakideari begietara begiratzea, entzute adia eta hitz egiteko itxarotea.<br>☐ 9. Txanda elkarrizketan eta txandakatzea errespetua eta berdintasuna sustatzen dituzten komunikazio-egoeretan.<br><br>☐ **B.Hizkuntzak eta beren hiztunak.**<br>☐ 1. Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa.<br>☐ 2. Taldeko eta inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haien behar edo interesei erantzuten dieten hitzak eta esamoldeak.<br>☐ **C. Ahozko hitzezko** | ☑ **A.Komunikazio-asmoa eta komunikazio-interakzioa.**<br>☐ 1. Komunikazio-errepertorioa eta hitzik gabeko komunikazioko elementuak.<br>☐ 2. Pertsonarteko komunikazioa: enpatia eta asertzioa.<br>☐ 3. Hizkuntza-harremanerako gizarteko arauak errespetua eta berdintasuna sustatzen duten komunikazio-egoeretan: arreta, entzute aktiboa, hitz egitekok aldiak eta txandakatzea.<br><br>☑ **B.Hizkuntzak eta horien hiztunak.**<br>☐ 1. Norbanakoaren hizkuntza-errepertorioa.<br>☐ 2. Inguruneko hizkuntza-errealitatea. Haurren behar edo interesei erantzuten dieten formulak eta esamoldeak.<br>☐ 3. Atzerriko hizkuntzara hurbiltzea. Oinarrizko komunikazio praktikorako elementuak.<br><br>☑ **C.Ahozko hitzezko komunikazioa. Ulermena -adierazpena -elkarrizketa.**<br>☐ 1. Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: elkarrizketak, gizarte-interakzioko jolasak eta bizipenak adierazteko jolasak.<br>☐ 2. Ahozko testu formalak eta informalak.<br>☐ 3. Mezuen komunikazio-interakzioa.<br>☐ 4. Entzunezko bereizketa eta kontzientzia fonologikoa.<br>☐ **D.Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.**<br>☐ 1. Irakurtzeak eta idaztearen erabilerak gizartean. Komunikazio-egoeren |

| | |
|---|---|
| ☐ 2.2. Sentsazioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea hainbat arte- eta kultura-adierazpenen aurrean. | ☑ 3.3. Ahozko kontaketaren bidez ideiak espontaneotasunez ekartzea gogora eta adieraztea. |
| ☐ 3.1. **Ahozko hizkuntza** beharrak, sentimenduak, desioak, emozioak, bizipenak adierazteko erabiltzea; ekintzak erregulatzeko eta hainbat egoera eta testuingurutan interakzioak izateko. | ☐ 3.4. Sorkuntza plastikoak egitea hainbat material eta teknika erabiliz eta behar denean talde-lanean era aktiboan parte-hartzea. |
| ☐ 3.2**. Hainbat lengoaien adierazpenerako aukerak esploratzea**, hizkuntza horietako berezko baliabideak eta materialak erabiliz. | ☐ 3.5. Dramatizazio-eta musika-proposamenak interpretatzea hainbat tresna, baliabide eta teknika erabiliz eta esploratuz. |
| ☐ 3.3. **Mezuak sortzea** komunikazio-errepertorioa segurtasunez eta konfiantzaz zabalduz eta aberastuz. | ☐ 3.6. Norberaren mugimendua era harmoniatsuan besteenera eta gorputz-adierazpen libre gisa, espaziora egokitzea interesa eta iniziatiba adieraziz. |
| ☐ 4.1. **idatzizko-hizkuntzarako hurbilketa**-jarduera ludikoetan era aktiboan parte hartzea. | ☐ 3.7. Intuiziozkoak eta ikusmenezkoak diren hainbat erreminta edo aplikazio-digital erabiltzea sormenez beren burua adierazteko. |
| ☐ 4.2**. Idazketa zehaztugabe, espontaneoeta ez-konbentzionaletara jotzea**, eta ☐ komunikazio-asmoko bere produkzioei gehitzea. | ☐ 4.1. Kode-idatzien bidez komunikatzeko interesa adieraztea, konbentzionalak izan ala ez, sormenezko funtzioa baloratuz. |
| ☐ 5.1. **Taldearen hizkuntza-eta kultura- errealitatean** naturaltasunez **harremanak izatea.** | ☐ 4.2. Testuaren eta paratestuarenezaugarri batzuk identifikatzea gizarte-erabilera duten eta aurreiritzi eta estereotipo sexistarik ez duten erabilera sozialeko liburuetan lagundutako ikerketaren bidez. |
| ☐ 5.2. **Haur-literaturarekin, musika-lanekin, ikus-entzunezko lanekin, dantzekin edo dramatizazioekin lotutako** banakako eta taldeko **jarduerekiko interesa eta gozamena adieraztea**, jarrera partehartzailearekin aurrera | ☐ 4.3. Liburutegira jotzea gozamena lortzeko erabilerarako arauak errespetatuz. |

**komunikazioa. Adierazpena - ulermena - elkarrizketa**

☐ 1. Ahozko hizkuntza eguneroko egoeretan: soinuekin izandako lehenengo elkarrizketak eta interakzio-jolasak.

☐ 2. Beharren, bizipenen eta emozioen adierazpena.

☐ 3. Ahozko hizkuntza norberaren jarrera erregulatzeko.

☐ 4. Hizkuntza-errepertorioa: komunikazio-egoerak, taldeko elkarrizketak, lexikoa eta solasa.

☐ 5. Soinu-adierazpena eta hitzen artikulazioa. Imitaziozko, hizkuntzaren bidezko eta entzumenaren- prestaketarako jolasak.

☐ 6. Mundua eta mezuak ulertzea entzute aktibo aktiboaren bidez.

☐ 7. Hiztegia. Errealitatea izendatzea.

## ☐ D.Idatzizko hizkuntzara hurbiltzea.

☐ 1. Idatzizko formak eta inguruneko beste sinbolo batzuk.

☐ 2. Idatzizko hizkuntzaren erabileretara hurbiltzea.

☐ 3. Irakurketa-ereduen eta erreferentzia-ereduen bidezko irakurketa.

☐ 4. Aurreiritzirik gabeko haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak, XXI. mendeko erronkei erantzuten dietenak eta bakearen kulturaren, haurraren eskubideen, generoen arteko berdintasunaren eta aniztasun etniko eta kulturalen inguruko balioak garatzen dituztenak.

☐ 5. Irakurketarako egoerak. Lotura afektiboak eta jolasaren bidezko loturak erreferentziazko irakurketa-ereduen bidez.

## ☐ E. Hizkuntza eta musika-lengoaia.

☐ 1. Kantak eta beste musika-adierazpen batzuk ezagutzea, baloratzea eta errepikatzea. Adierazten dituzten sentimenduak eta emozioak.

funtzioak eta esangura.

☐ 2. Hainbat euskarritan idatzitako testu idatziak.

☐ 3. Komunikazio-asmoa eta testuaren eta paratestuaren oinarrizko ezaugarrietara hurbiltzea. Interpretaziorako eta ulermenerako lehenengo hipotesiak.

☐ 4. Idazketa-sistemaren ezaugarriak: hipotesi kuantitatiboak eta kualitatiboak.

☐ 5. Kode idatzira hurbiltzea, zehaztu gabeko idazketetatik aurrera eginez eta eboluzio-prozesua adieraziz.

☐ 6. Adierazpen grafikorako beste kode batzuk: irudiak, sinboloak, zenbakiak…

☐ 7. Informazioa bilatzeko, birlantzeko eta adierazteko estrategietara hurbiltzea.

☐ 8. Banakako irakurketarako egoerak edo irakurketa-ereduen bidez.

## ☐ E. Literatura ikasketara hurbiltzea.

☐ 1. Aurreiritzirik gabeko haur-literaturako ahozko eta idatzizko testuak, XXI. mendeko erronkei erantzuten dietenak eta bakearen kulturaren, haurraren eskubideen, generoen arteko berdintasunaren eta aniztasun etniko eta kulturalen inguruko balioak garatzen dituztenak.

☐ 2. Lotura afektiboa eta jolasaren bidezko loturak literatura-testuekin.

☐ 3. Aurreiritzi eta estereotipo sexistarik gabeko literatura-testuen inguruko elkarrizketak.

## ☐ F.Hizkuntza eta musika-lengoaia.

☐ 1. Ahotsaren, gorputzaren, haurraren inguruneko ohiko objektuen soinua sortzeko eta adierazpenerako aukerak. 2. Musika-proposamenak hainbat formatutan.

☐ 3. Soinua, isiltasuna eta horien ezaugarriak. Musikaren kodea.

☐ 4. Adierazpen-asmoa musika sorkuntzetan.

<table>
<tr>
<td>eginez.</td>
<td></td>
<td rowspan="6">☐ 2. Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta musika-tresnen soinua sortzeko eta adierazpenerako aukerak.<br>☐ 3. Ingurunea ezagutu eta horretaz gozatzeko entzumena erabiltzea.<br>☐ 4. Soinua, doinua eta erritmoa.<br><br>☐ F. Hizkuntza eta adierazpen plastikoa eta bisuala.<br>☐ 1. Materialak, koloreak, testurak, teknikak eta plastikarako prozedurak.<br>☐ 2. Adierazpen plastikoak eta bisualak. Beste arte-adierazpen batzuk.<br>☐ G.Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.<br>☐ 1. Keinuaren eta mugimenduaren bidezko adierazpen askea.<br>☐ 2. Espazioan zehar lekualdatzea.<br>☐ 3. Imitazio-jolasak txotxongiloen, panpinen edo irudikapen espontaneoko beste objektu batzuen bidez.</td>
<td rowspan="6">☐ 5. Gozatzeko musika entzutea.<br><br>☐ H. Hizkuntza eta gorputz-lengoaia.<br>☐ 1. Norberaren gorputzaren adierazteko eta komunikatzeko aukerak aurreiritzi eta estereotipo sexistarik gabeko banakako eta taldeko jardueretan.<br>☐ 2. Gorputz-eta antzerki-adierazpeneko jolasak.<br><br>☐ I. Teknologia digitalak.<br>☐ 1. Aplikazioak eta erreminta digitalak informazioa bilatzeko eta prozesatzeko, sortzeko, harremanetarako eta kooperazio digital barneartzaile eta berdinzalea eraikitzeko.<br>☐ 2. Teknologia digitalen erabilera osasuntsu eta arduratsua.<br>☐ 3. Irakurmena eta irudien eta baliabide digitalen bidez jasotako informazioaren interpretazioa.<br>☐ 4. Haurraren inguruko teknologia-elementuen funtzio hezigarria.</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>☐ 5.1. Bere inguruneko hizkuntza-eta kultura-aniztasunean normaltasunez harremanak izatea, beste hizkuntza, etnia eta kultura batzuekiko interesa adieraziz.</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>☐ 5.2. Errutinekin eta eguneroko egoerekin lotutako komunikazio-interakzioetan atzerriko hizkuntzarekin parte hartzea.</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>☐ 5.3. Haur-literaturara hurbiltzeko jardueretan parte hartzea, bai banakakoetan, bai elkarrizketa testuinguruetan eta testuinguru partehartzaileenetan.</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>☐ 5.4. Emozioak, ideiak eta pentsamenduak arte-eta kultura-adierazpenen bidez adieraztea, hezkuntza prozesuaz gozatuz.<br>☐</td>
</tr>
<tr>
<td></td>
<td>☐ 5.5. Arte-adierazpenen aurrean gustuak, lehentasunak eta iritziak adieraztea, horien gozamenak sorrarazten dizkien emozioak azalduz.</td>
</tr>
</table>

| Antolatutako jardueren proposamena: Psikogelako saioen egitura | | |
|---|---|---|
| **HASIERAKO FASEA** | | |
| **Jarduera** | **Ebaluazio-adierazleak** | **Ebaluazio-tresnak (ebidentziak)** |
| **Ikasturte hasierako jolasak:** | • Txoko honetan parte hartzen du.<br>• Jolasaren arauak azaltzen direnean arreta mantentzen du.<br>• Jolasaren arauak ulertzen ditu.<br>• Jolasaren jardueran jakinmina adierazten du.<br>• Mota guztietako jolasak aukeratzen ditu.<br>• Galtzen duenean frustrazioa kudeatzen du.<br>• Taldean jolasten duenean lagunak errespetatzen ditu.<br>• Onartzen ditu besteen proposamenak.<br>• Hizkuntza matematikoa ondo erabiltzen du.<br>• Jolasak zaintzen ditu.<br>• Ondo jasotzeaz arduratzen da. | • Behaketa sistematiko eta jarraia<br>• Jolas batzuekin kontrol zerrendak<br>• Haurren ebidentziak, argazkien bidez.<br>• Kontrol zerrenda |
| **Puzzleak (10 piezatik gorakoak)** | | |
| **Domino koloretakoa edo irudiena** | | |
| **Errekoridoa koloretako edo irudien dadoa duena, adibidez little circuit djeco** | | |
| **Memori 8-10 bikotekoak** | | |
| **Espazioa lantzeko jolasa: My firts totem edo Spacio (DJECO)** | | |
| **Pentsaera konputazionala lantzeko jolas hauetariko bat edo bi eukiko ditugu gelan:**<br>**Puzzle Waldorf cuadrado**<br>**CAMELOT**<br>**Grabolo**<br>**Bata-Waf**<br>**Ludamino**<br>**Little memo**<br>**Clever Castle**<br>**Sakkaro**<br>**Juego de apilar cristales de colores** | | |
| **GARAPEN FASEA** | | |
| **Jarduera** | **Ebaluazio-adierazleak** | **Ebaluazio-tresnak (ebidentziak)** |
| **Puzleeak 12-35 piezatakoak** | • Txoko honetan parte hartzen du.<br>• Jolasaren arauak azaltzen direnean arreta mantentzen du.<br>• Jolasaren arauak ulertzen ditu. | • Behaketa sistematiko eta jarraia<br>• Jolas batzuekin kontrol zerrendak<br>• Haurren ebidentziak, argazkien bidez.<br>• Kontrol zerrenda |
| **Errekorridoak 1,2 eta 3 puntutako dadoekin** | | |
| **Memori** | | |

| | | |
|---|---|---|
| **Ezaugarriak**<br><br>**Pentsaera konputazionala lantzeko jolas hauetariko bat edo bi eukiko ditugu gelan:**<br><br>**Batasaurus**<br>**Trucky 3**<br>**Castle Logix**<br>**Fast Flip**<br>**Pixel Art Challenge, antzekoak**<br>**Animalea TRIOS** | • Jolasaren jardueran jakinmina adierazten du.<br>• Mota guztietako jolasak aukeratzen ditu.<br>• Galtzen duenean frustrazioa kudeatzen du.<br>• Taldean jolasten duenean lagunak errespetatzen ditu.<br>• Onartzen ditu besteen proposamenak.<br>• Hizkuntza matematikoa ondo erabiltzen du.<br>• Jolasak zaintzen ditu.<br>• Ondo jasotzeaz arduratzen da. | |

| AMAIERAKO FASEA | | |
|---|---|---|
| **Jarduera** | **Ebaluazio adierazleak** | **Ebaluazio-tresnak (ebidentziak)** |
| **Puzzleak 20-48 piezatakoak**<br>**Domino puntuduna**<br>**Errekorridoa dado arruntarekin**<br>**Tangran errezak**<br><br>**Pentsaera konputazionala lantzeko jolas hauetariko bat edo bi eukiko ditugu gelan:**<br>**Robot Turtles**<br>Crazy Clack (Mercurio)-<br>**Figurix FX**<br>**Batti burri**<br>**Candy beleduc**<br>**Los tres cerditos**<br><br>**Duo puzzle smart games**<br>**Mosaicolor Nathan** | • Txoko honetan parte hartzen du.<br>• Jolasaren arauak azaltzen direnean arreta mantentzen du.<br>• Jolasaren arauak ulertzen ditu.<br>• Jolasaren jardueran jakinmina adierazten du.<br>• Mota guztietako jolasak aukeratzen ditu.<br>• Galtzen duenean frustrazioa kudeatzen du.<br>• Taldean jolasten duenean lagunak errespetatzen ditu.<br>• Onartzen ditu besteen proposamenak.<br>• Hizkuntza matematikoa ondo erabiltzen du.<br>• Jolasak zaintzen ditu.<br>• Ondo jasotzeaz arduratzen da. | • Behaketa sistematiko eta jarraia<br>• Jolas batzuekin kontrol zerrendak<br>• Haurren ebidentziak, argazkien bidez.<br>• Kontrol zerrenda |

| IDU |
| --- |
| **1. Informazioa eta edukiaren adierazpen aniztasuna**<br><br>● Printzipioa: Edukia eta informazioa modu askotan aurkeztea, haur guztiek ulertzeko eta eskuratzeko aukera izan dezaten.<br>● Aplikazioa Haur Hezkuntzan:<br>○ Informazioaren eta edukien aurkezpena egokitzea (bisuala (Kartelak, irudiak, koloreak eta piktogramak), entzumenekoa, manipulatiboak (puzleak, blokeak, objektuak)).<br>○ Hizkuntza eta sinboloen erabilera askotarikoa erabiltzea (piktogramak, marrazkiak, keinuak).<br>○ Esperimentatzeko eta ulertzeko aukerak eskaintzea: haurrek objektuekin eta ingurunearekin esperimentatzeko aukera (jolas sinbolikoa, material desberdinak…). |
| **2. Parte-hartze eta motibazio aniztasuna**<br><br>● Printzipioa: Ikasle guztien interesa eta motibazioa pizteko, jarduera eta erronkak egokitzea.<br>● Aplikazioa Haur Hezkuntzan:<br>○ Helburu pertsonalizatuak: Haur bakoitzaren interes eta beharren araberako jarduerak proposatzea.<br>○ Aukera askatasuna: Haurrak jarduera batzuen artean aukeratzeko aukera izatea.<br>○ Jolas eta erronka dibertigarriak: Kontuan hartu adin-tartearen gustuak eta motibazioak.<br>○ Lotura emozionala: Jolasak emozioekin eta eguneroko egoerekin konektatzea.<br>○ Laguntza soziala: Haurrek elkarlanean aritzeko dinamikak proposatzea. |
| **3. Adierazpen eta ekintza aniztasuna**<br><br>● Printzipioa: Ikasle bakoitzari ikasitakoa adierazteko eta praktikan jartzeko aukera ezberdinak ematea.<br>● Aplikazioa Haur Hezkuntzan:<br>○ Adierazpen-modu desberdinak: Haurrek margotuz, dantzatuz, hitzez edo mugimendu bidez adierazteko aukera izatea.<br>○ Erritmo eta autonomia errespetatzea: Haurren jarduera erritmoa egokitzea eta behar denean laguntza eskaintzea. |

- Jolas eta rol dinamikoak: Haurrek beren istorioak kontatzeko eta rol-jokoak egiteko espazioa izatea.
- Esku-hartze indibidualizatua: Laguntza behar duten haurrei tresna osagarriak eskaintzea (adibidez, komunikazio-tresnak).

**Antolaketa , metodologiak eta baliabideak**

**Espazioen erabilera**

Espazioaren izaera:

- ☑ Amankomuna (sarrera, kanpo espazioa, pasilloa...)
- ☐ Berariazkoa

Geruzak:

1. Lehen geruza: hormak, zoruak eta sabaiak.

Espazioaren identitatea eta ezaugarri orokorrak. Diseinatu dugun edo diseinatu nahi dugun espazioaren identitatea zein den (kanpo/barne espazioa, lengoaia(k), zaintza, ongizatea, segurtasun afektiboa...)

2. Bigarren geruza: altzariak eta hauen antolaketa

Bi mahai aulkiekin eta beste bat karratua lau aulkiekin egokia delako kartekin jolasteko.
Bi altzairu material desberdinak gordetzeko, batean jolasak bestean puzzleak.

3. Hirugarren geruza: materialak eta baliabideak:

HAURREN ESKURA DAUDE:

Puzzleak
JOLASAK (bakarka erronka pertsonaletan, zein taldeka aritzeko) memori, oca, dominoak, smart games erakoak, kartak errekorridoak...

HELDUEN ESKURA DAUDE:

4. Laugarren geruza: pertsonak

Haurren garapen harmoniko eta integrala gertatzeko, helduek objektuekin eta pertsonekin harremanak ahalbideratzeko espazio ziur, babesle eta erosoak diseinatu behar dituzte. Espazio horietan helduon presentzia ziurtatu behar da laguntza eta akonpainamendu egokia gertatzeko.

Arreta berezia jarriko da haurrekin gertatzen diren elkarrizketetan.

Txoko hau eta bertan dagoen materiala, haurren garapen, premia eta eskakizunen arabera moldatzen joango da.

**Hautatutako printzipio eta estrategia metodologikoak. Taldekatzeko moduak eta talde-lana**

Espazio honetan material desberdina jarriko dugu, puzzleak, memoriak, dado bat erabiliz egiten diren errekorridoak, kartak...
Matematika ( logika, espazioa, seriazioak,...) lantzeaz gain, sormena lantzeko (bakoitzak bere erara eta ahal duena egingo baitu, saiakera asko eginez… Bakarka zein taldean erabaki ahal du egin nahi duena.) ere aukera handiak ematen ditu espazio honek. Irakasleok noizean behin arauak azaldu behar dizkiegu, kartak banatzen lagundu…

- Espazio hau jolas librean libreki joateko izaten da, nahi duena joango da.
- **Materiala**, hau da jolasak, **aldatzea** garrantzitsua da.
- **Garapenaren autonomia:** ikasleek aukeratzen dute hemen jolastea, norekin eta baita zer egingo duten adostea.
- **Ekintzaletasuna:** Hemen saiakera edo froga asko egiteko, esperimentatzeko aukera daukate. Ezinbestekoa da hautatzea, zuzentzea, akatsak egitea, ebaztea, eta besteak beste, ondorioak ateratzea.
- **Garapenaren autonomia:** Ikasleak berak aukeratzen du zer egin nahi duen. Heldua bidaide lana egiten du.
- **Segurtasun afektiboa:** ikaslea da bere ekoizpenaren jabe. Berak baloratzen du noiz behar duen laguntza eta eskatzen du.
- **Taldekatzea:**
  - Espazio honetan bakarka zein taldean ibiliko dira, ume bakoitzaren beharraren arabera. Mahai jolasaren arabera taldekatuko dira.

- Talde handia jolas berri batzuk azaltzeko.
- Talde txikiak (3-4)partidak ,errekorridoak memoriak..
- Bikoteka Domino, ezaugarriak…
- Banakako lana erronkak, puzzleak…

**Baliabide pertsonalak: Hezitzaileen esku-hartze estilo bateratua (Protokoloak, arauak…)**

HEZITZAILEEN ESKU-HARTZE ESTILO BATERATUA: galdera-gidak, galdera-erronkak, arauak, marra-gorriak…

- Espazioak eta materialak berak mugatuko du haur kopurua mikroespazio bakoitzean, hala ere behar denean hezitzaileak ezarriko ditu beharrezkoak diren neurriak.
- Oinarrizko arau sozialak ezarriko dira (tratu ona, errespetua...), berdinekin zein materialarekin, zaindu eta bukatzean bere lekuan gorde.
- Haur bakoitzari doitutako deboluzio/ispilu lanak egingo ditu hezitzaileak (ikusi dut nolako erronka egin duzun), baita bere garapenean aurrera egin dezan egin beharreko galderak ere: zer falta da eredua bezala egoteko?, Zure gazteluari zerbait falta zaiola uste duzu? Zein pieza jarri behar da aurrean…?
- Matematikaren hiztegi propioaren erabilera funtzionala.

**Ebaluazio-prozesua. Ebaluazio hezitzailearen erabilera**

**Haurren eboluzioa (lorpen adierazleak)**

Atal honetan, haurraren eboluzioaren erakusleak jasoko ditugu. Erakusle hauek, mahai jolasen txoko horretan eskaintzen ditugun material eta proposamenekin lotura zuzena izango dute, egunerokoan antzeman daitezkeenak. Adibidez:

1. EREMUA

- Erronka berriei, pieza gehiagoko puzzlea hartzen duenean… aurre egiteko gai da?
- Hobetzeko gogoa adierazten du?

- Emozioak adierazi eta kontrolatzen ditu, txokoan sortzen diren egoera gatazkatsuetan.

2. EREMUA

- Txokoan eskaintzen dizkion materialak, identifikatu, erlazionatu eta sailkatzen ditu, berak ezarritako irizpideen arabera.
- Zenbakiak ondo erabiltzen ditu karta jolasetan eta eskainitako material eta tresnen bidez.(Errekorridoetan…)

3. EREMUA.

- Haurren arteko elkarrizketetan txandak errespetatzen ditu eta lagunek esaten dutena aditzen du.
- Txokoak eskaintzen dizkion adierazpen grafikorako kodeak (sinboloak, irudiak, zenbakiak.. ) ulertzen ditu.

***Ikusi beherago dagoen taula.***

**Hezitzaile/maisu-maistren ebaluazioa**

Ebaluazioa egiteko antolamendua:

- ☐ Denbora tartea (astero, hilabetero...)
- ☐ Haurrentzako proposamenak (espazio, material eta eskuhartzeak)
- ☐ Aurrez ezarritako helburu edo intentzionalitatea (guk eskainitakoa lantzea pentsatua geneukana garatzeko erabilgarria izan zaio haurrari?).
- ☐ Koordinazioa eta antolamendua (mailaka, zikloka, etapaka, bertikalki, horizontalki...)
- ☐ Erremintak (errubrikak, kontrol zerrendak, dokumentazioa...).

**Ebaluaziorako teknikak, erremintak eta tresnak**

| Teknika: Behaketa sistematikoa | Tresnak: |
| --- | --- |
| ☐ Egunerokoa ☐ Kontrol-zerrendak ☐ Gertakari larriak ☐ Argazkiak ☐ Bideoak | ☐ Haurren ebidentziak (elkarrizketak, ekoizpenak...) |

# MAHAI-JOLASEN LANKETAREN ERRUBRIKA

| EBALUAZIO-IRIZPIDEAK | JARDUN/GARAPEN-MAILAK | | | | PUNTUAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| | HASIERAKO MAILA (puntu 1) | MAILA EGOKIA (2 puntu) | MAILA AURRERATUA (3 puntu) | MAILA BIKAINA (4 puntu) | |
| **Kolore eta forma desberdinak identifikatu eta bereiztea.** | Ikasleak kolore edo forma bat edo bi besterik ez ditu bereizten laguntza jarraituarekin. | Ikasleak 3-4 kolore eta forma desberdin bereizten ditu iradokizun gutxirekin. | Ikasleak 5-6 kolore eta forma bereizten ditu modu autonomoan. | Ikasleak kolore eta forma guztiak identifikatzen ditu, bereizteko estrategia propioak proposatuz. | |
| **Objektuak orden logiko batean kokatzeko eta patroiak identifikatzeko gaitasuna.** | Seriazio sinpleak osatzeko zailtasunak ditu eta laguntza esanguratsua behar du. | Seriazioak modu egokian osatzen ditu iradokizun txikiekin. | Seriazio konplexuak osatzen ditu modu autonomoan eta patroi berriak sortzen ditu. | Patroiak eta seriazioak sortzen ditu sortzaileki eta beste ikaskideei nola egin azal dezake. | |
| **Objektuak espazioan kokatzeko eta espazio-harremanak ulertzeko gaitasuna.** | Espazioan kokatzeko zailtasunak ditu eta gidaritza jarraia behar du. | Objektuak espazioan kokatzen ditu modu egokian, iradokizunekin. | Espazio-harremanak autonomiaz ulertzen eta aplikatzen ditu, objektuak modu egokian kokatuz. | Espazioaren kontzientzia modu aurreratuan erakusten du, objektuak zehaztasunez kokatuz eta beste ikaskideei lagunduz. | |
| **Arauei jarraitzea eta talde-jokabidea.** | Arauen ulermen eskasa erakusten du eta talde-lanean aritzeko zailtasunak ditu, interakzioetan etengabeko gidaritza behar du. | Arauei modu orokorrean jarraitzen die eta taldearekin elkarreragiteko oinarrizko gaitasunak erakusten ditu. | Arauei jarraitzen die autonomiaz eta talde-dinamikan modu eraginkorrean parte hartzen du. | Arauak erraz ulertzen ditu eta taldeko dinamika hobetzeko ekarpen aktiboak egiten ditu, beste ikaskideei lagunduz. | |
| **Arazoen aurrean logika erabiltzea eta pentsamendu** | Arazoak konpontzeko zailtasunak ditu eta laguntza iraunkorra | Arazo sinpleak ulertu eta konpontzeko gai da iradokizun gutxirekin. | Arazoak modu autonomoan aztertzen ditu eta irtenbideak | Irtenbide berritzaile eta eraginkorrak eskaintzen ditu, logika | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **logiko-deduktiboa garatzea.** | behar du irtenbideak bilatzeko. | | modu logikoan proposatzen ditu. | aplikatuz eta azalpenak emanez. | |
| **Arazoen ebazpenean autonomia garatzea.** | Laguntza esanguratsua behar du jolasaren arazo edo erronkei aurre egiteko. | Arazo txikiak irakaslearen laguntzarekin konpontzen ditu. | Arazoak modu autonomoan ebazten ditu eta irtenbide egokiak proposatzen ditu. | Arazoak modu sortzailean ebazten ditu eta laguntza ematen die beste ikaskideei beren erronkak konpontzeko. | |
| **Adierazpen hizkuntza eta kontzeptuak erabiltzea.** | Koloreen eta formen izenak esateko zailtasunak ditu eta bere komunikazioa oinarrizkoa da. | Koloreen eta formen izenak esateko gai da, iradokizun gutxirekin. | Forma eta koloreak modu egokian izendatzen ditu, esaldi sinpleetan erabiltzen dituelarik. | Hizkuntza aberats eta egoki batean adierazten du bere burua, kontzeptu berriak integratuz. | |
| **Lanak modu autonomoan egitea eta norbere burua antolatzea.** | Etengabeko gidaritza eta laguntza behar du zereginei ekiteko. | Gidaritza gutxirekin zereginei aurre egiten die eta zeregina amaitzen du. | Lanak modu autonomoan antolatzen ditu eta amaitu ondoren zuzenketak egiten ditu. | Zereginak modu eraginkorrean egiten ditu eta hobekuntzarako ekimenak proposatzen ditu. | |
| **Materialak erabiltzeko eta zaintzeko ardura.** | Materialak modu egokian erabiltzeko zailtasunak ditu eta laguntza iraunkorra behar du. | Materialak zaintzen ditu gidaritza txikiarekin eta erabilera oinarrizkoa egiten du. | Materialak modu arduratsuan eta autonomoan erabiltzen ditu. | Materialak zaintzen ditu eta ikaskideei erabilera egokian laguntzen die. | |
| **Ekimen propioa izatea zereginak hasteko eta irtenbideak proposatzeko.** | Ekimena erakusteko zailtasunak ditu eta esku-hartze zuzena behar du. | Iradokizun eta gidaritza txikiarekin, ekimen propioa erakusten du zereginei aurre egiteko. | Ekimena modu autonomoan erakusten du zereginetan eta irtenbideak proposatzen ditu. | Ekimena modu sortzailean erakusten du, zereginak hobetu eta taldean ekarpen esanguratsuak eginez. | |
| | | | | **GUZTIRA** | |
| **Puntuazioa:** | **1-10 puntu: HOBETU DAITEKE** | | **11-20 puntu: EGOKIA** | **21-30 puntu: ONA** | **31-40 puntu: BIKAIN** |